



# JUAN JOSE MAKAZAGA MENDIBURUEN

## BERTSOLARIYA

ITURBURU UGARIREN  
PAUSALEKU  
(1887-1963)

**J. Zabala Beristain**

**Xenpelar Bertso Eskola kidea eta Lau-Haizeta Elkarteko kidea**



BERTSOLARIYA bertso errebista, Makazagaren inprimategian jaiotzen zen 1931. urtean. 1932. urterarte iraun zuen eta guztira berrogeita hamalau ale eman ziren argitara. Ez ziren lan horiez izan bertsolaritzaren arloan inprimategian egin ziren bakarrak, liburu hauek ere argitaratu zituen Makazagak: *Txirritaren testamentua*, *Euskal Erriko kanta zarrak* (hiru liburuki), *Bilintxen bertsuak*, *Xenpelarren bertsuak* eta bertso paper asko eta asko. Guzti hauetatik.

BERTSOLARIYA asterokoari ekin zionean, laguntzaileak izan zituen Zabaleta anaiak. Asteroko honetan Makazagak Txirrita jarri zuen izarra, astero bertso berriak egin eta publikatzeko. BERTSOLARIYaren edukina berriz, lau orriz osatu zen: bi bertso berriekin, beste biak han hemenka bildutako bertso zaharrekin.

BERTSOLARIYAk bere egiturari aro berri bati hasiera eman zion. Batetik, ordurarte tokian bertso paperak publikatzera mugatzen ziren eta BERTSOLARIYAk muga horiek gainditu zituen, horien adierazle argia azaleko orriaren goian Euskal Herriko zazpi herrialdeen armarrak ipini baitzuen, eta hitzik aipatu gabe nabarmen erakutsi nahi izan zuen, herriko bertsolariez gain, Euskal Herri osoko bertsolaritza zela BERTSOLARIYA bultzatzeko hartu zuen erabakiarekin, gerraurreko euskal idazle kulto gehienek ez bezalako iritzia bultzatu zuen, izan ere bertsolariek erdal hitz ugari erabiltzen zutelakoan baztertu samar zeuden. Makazaga jn.ak, aldiz, ahozko bertsolarien lanak bere esku hartu zituen, eta neurri batean bederen, inprimategia jarri zuen bertsolaritza plazaratzeko zerbitzuan, horri esker sortu zuen BERTSOLARIYaren fruitua.

Makazagak lotu zituen bi mugarri bertsolaritzaren historian, Xenpelarrekin hasi (1835-1869) eta Txirritarekin (1860-1936) egin zuen mugarri, bien arteko urteetan gure herriak beste bertsolari asko izan baitzituen. Bertsolaritzaren arloan aberatsetan aberatseta izan zen mende baten buruan gure herria, ikus bestela orduko izenak: Xenpelar; Jauregi, "Jautarkol", poeta batez ere (1844-1909); Salaberria (1845-1909); Elizegi (1859-1925); Iñarra (1844-1912); Berra (1875-1944); Taberna (1886-1942); Urrutia (1885-1962); Josepanttoni Aranberri, emakume bakarra (1865-1943); Belaunzarán (1832-1898); Zapirain J.K. (1867-1934); Zapirain J. (1873-1957); Txirrita; Lujanbio J.J. (1874-1954); Lujanbio N. (1878-1958); Lujanbio A. (1886-1961); Zabaleta J. (1894-1952); Zabaleta P. (1896-1967); Uranga, batez ere antzer-

kigile (?-1934). Multzo ederra aipatutakoa. Gehienek dituzte euren bertso-jarriak BERTSOLARIYan. Batzuk, gutxienak, ez dira gure herrian jaiotakoak, baina beren bertsolaritzaren obra hemen egin zuten, beraz, gure herrian egindako bertsolariak kontsideratu genitzake.

BERTSOLARIYaren historia ez da 1931. urtean hasi eta 1932. urtean amaitzen. Berrogeita hamar urte geroago, hain zuzen 1981. urtean, argitara eman ziren 54 aleekin liburu ederrenetariko bat osatu zen, hiru argitaralpen izan dituen, azkena 1983. urtean. Fruitu ederrenetariko bat osatu ere bai Makazagaren BERTSOLARIYarekin, A. Zabala AUSPOA bertso-liburu bilduma sortzailearen eta J.M. Lekuona jaunaren iritzian, mende honetan euskalgintzan egindako lanaren emaitzan, hobereenen artean jarri behar da BERTSOLARIYA. Bertan oso osorik bildu dira orduan BERTSOLARIYA asterokoan agertutako lan guztiak. Liburuan hirurehun eta hamahiru bertso sorta dira, larogei bat bertsolariek egindakoak, horietatik gure herriko bertsolarien kopurua hemeretzikoa da, hirurogeita hamar bat bertso sortarekin.

Makazaga zenari eta bere obra ederrari emandako idazlan hau, aipamen soil batez gera ez dadin, Santotomas eguneari omenaldi batean gauzatu nahi dugu Xenpelar Bertso Eskolakoek. Omenaldi honekin ziklo baten helburua osatu nahi dugu, eta ziklo horren ezaugarri BERTSOLARIYan aurkitu liteke, hain zuzen gerraurreko bertsolaritzaren esparrua betetzen duelako BERTSOLARIYAk. Gerraondoko garai ilun horren gainetik, gure gaurko bertsolaritzaren giroa, gerraurreko bertsolaritzaren giro indartsuarekin elkartze lanak bideratzeko.

Idatzi hau amaitzeko, esan, 1995. honetako urtearen aurreneko hilabeteetan erauzia izan dela Makazaga inprimategia, erruririk ez duten makinatzairekin, inprimategia bota eta bera zen lekuan, aparkaleku bat egokitu dute. Ez da, ez, agian, Makazagaren inprimategiak mereziko lukeen patua, baina horrela erabaki dute.

Makazaga jn.ak utzi zuen obra hor dauka eder-eder irakurleak, euskaldungoarentzat ezin hobea den altxor historikoa. BERTSOLARIYan edonork aurki ditzake kantu eder askoak, Makazaga jaunaren euskaltzaletasuna eta Euskal Herriarekin zuzen konpromezuaren adierazle ezin hobek.